

# Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxa: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282

•E-maila: seber@ikastola.net
•www.seberaltubeikastola.net

### **GOOGLE MEET: Mugikorretan edo Tabletan**

Google-Meet plataforma erabiliko dugu bideo-konferentziak egiteko: irakasle-guraso, irakasle-ikasle edo ikasle-ikasle artean. Horretarako gure gailu digitaletan aplikazioa nola instalatu eta erabiltzen den azalduko dugu jarraian.

### EMAILA KONFIGURATU MUGIKORREAN/TABLETAN:

1. Gure gailu digitalean, ikastolako helbide elektronikoa konfiguratu behar dugu. Horretarako, "Gmail" aplikazioa zabalduko dugu.

Instalatuta ez baduzue, geroago "Meet" aplikazioa instalatzeko pausoak azaltzen ditugunean, "Gmail" jarrita bilatzailean eta pauso berdinak jarraituta, instalatu egingo litzateke.



2. Aplikazioa zabalik izanda, ezker aldean agertzen diren 3 marratxo dituen botoian sakatu behar dugu. Ondoren menua beheraino bajatu eta *"ajustes"* sakatu.





3. Ondoren *"añadir cuenta"* sakatu beharko dugu eta jarraian *"google"* kontua aukeratu behar dugu.





# Seber Altube Ikastola

Argitu dagigun etorkizuna, euskara zabal hadi herrira

ETA Z/G 48300 GERNIKA-LUMO • Tel.: 946270003 - Faxa: 946270153 • Haur eskola: 946270152 - 696017282 •E-maila: seber@ikastola.net • www.seberaltubeikastola.net

4. Orain, zuen seme-alabaren helbide elektronikoa sartu behar duzue. Helbideak horrela konfiguratuta daude: izenaren lehenengo letra, lehenengo abizena, jaiotze urtearen azkenengo bi zenbakiak eta "@seberaltube.net" (dena letra txikiz). Adibidez: <u>pbilbao10@seberaltube.net</u>. Ondoren pasahitza sartu beharko duzue eta "Siguiente" botoia sakatu.

Google		
Iniciar sesión Utiliza tu cuenta de Google. Más información	Crear cuenta	
Correo electrónico o teléfono	,	
¿Has olvidado tu correo electrónico?		Siguiente

5. Pauso hauek jarraituz helbide elektronikoak mugikorrean konfiguratu ditugu. Kontu batetik bestera aldatzeko, perfileko argazkian edo letran sakatuta, menua agertuko zaigu kontu batetik bestera aldatzeko.

= Buscar correo		David Perez dperez@seberaltube.net
RECIBIDOS		Gestiona tu cuenta de Google
	<u>گ</u>	*
	21	•
		Política de Privacidad · Condiciones de Servicio





#### MEET MUGIKORREAN edota TABLETAN INSTALATU:

1. Aplikazio guztiak agertzen diren menua zabaldu behar dugu. Bertan *"play store"* aplikazioa zabaldu eta bilatzailean *"Meet"* aurkitu. Ondoren *"instalar"* sakatu behar dugu,



2. Instalatu eta gero, aplikazioa zabaltzen dugunean ongi etorriko mezu bat agurtuko zaigu eta *"comenzar"* sakatuko dugu. Gero, baimenak eskatuko dizkigu mikrofonoa eta kamera erabiltzeko, biak baimendu behar ditugu *"permitir"* sakatuta. Azkenik, aplikazioa zein kontuarekin erabiliko dugun galdetuko digu. Gure kasuan ikastolako kontua aukeratu behar dugu.







• Aplikazioa zabaltzen dugunean *"nueva reunión"* botoia agertuko zaigu. Bideo-dei berri bat egiteko erabiliko dugu. Bertan klik egin eta gero partehartzaileak gonbidatu beharko ditugu *"compartir"* botoia erabiliz: whatsapp edo Gmail bidez



3. Bideo-deia martxan ari den bitartean, hauek dira agertzen diren botoiak:



III O <

